

Munduko Futbol Txapelketaren jatorria eta ibilbidea

Futbola da munduan jarraitzaile gehien mugitzen duen kiroleko bat. Baina zer dakigu Munduko Futbol txapelketari buruz?

Jarraian, futbolaren historia hizpide duen testu bat irakurri eta jarduera batzuk egingo dituzu.

- Irakurri aurretik, futbolaz zer dakizun aztertuko duzu.
- *Munduko Futbol Txapelketaren historia* irakurgaia:
 - Irakurri bitartean, gaiari buruzko informazioa egiaztatuko duzu.
 - Irakurri ondoren, testuko datu batzuen inguruko galderei erantzungo diezu.
- Futbolaren esparruko zenbait aditz-egitura aztertu eta ideia batzuk idatziko dituzu.
- Futbolaren inguruan eztabaidatuko duzue taldean.



Errusia: 2018ko Munduko Futbol Txapelketa

Futbolaz bi hitz

Futbolarekin lotutako zer hitz eta esapide datozkizu burura? Hartu pare bat minutu horretarako, eta osatu zerrenda bat. Ondoren, alderatu zure taldekoek egin duten zerrendarekin.

Ea zenbat dakizuen futbolari buruz. Adierazi beheko baieztapenak egia edo gezurra diren.

- Munduko Futbol Txapelketa lau urtetik behin izaten da.
- Italiak irabazi ditu Munduko Futbol Txapelketa gehien.
- Emakumezkoen Munduko Futbol Txapelketa ere izaten da.
- Lehendabiziko Munduko Futbol Txapelketa Uruguain izan zen.

Munduko Futbol Txapelketaren historia

Irakurri Munduko Futbol Txapelketaren jatorriaz eta ibilbideaz hainbat datu ematen dituen testua. Irakurri bitartean, egiaztatu aurreko ariketan emandako erantzunak.

Munduko Futbol Txapelketaren Historia

Munduko Kopa da futbolari guztiek gehien atsegin duten nazioarteko garaikurra.

Munduko Futbol Txapelketa da nazioarteko gizonezkoen futbol-lehiaketarik garrantzizkoena. Futbol-federazio nazionalak biltzen dituen erakundea, FIFA (Fédération Internationale de Football Association) da antolatzailea.

Munduko Kopa 1930ean jokatu zen lehendabizikoz, eta orduz geroztik lau urtez behin egin da, 1942an eta 1946an salbu, Bigarren Mundu Gerratik. Errusiako Munduko Kopa, 2018koa, txapelketaren 21. edizioa izango da.

24 herrialdek soilik lortu dute edizioen batean munduko lau onenen artean sailkatzea. Talde horietatik 8 selekzio besterik ez dira izan munduko txapeldun: Brasil (5 aldiz), Alemania (4), Italia (4), Argentina (2), Uruguai (2), Frantzia, Ingalaterra eta Espainia (bana). Garaipen bakoitzeko herrialde horretako futbol-ezkutuari izar bat eransten zaio. FIFAk, Gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketaz gain, Emakumezkoen Munduko Futbol-kopa ere antolatzen du: 1991n jokatu zen aurrenez, eta hurrengoa Frantzian izango da 2019an.



Emakumezkoen Munduko Futbol Kopa 2019an jokatuko da.

Hasiera zailak

Ia 90 urte betetzeko zorian, txapelketak une gogoangarriak eskaini ditu. Uruguain izan zen lehendabizikoz Munduko Futbol Txapelketa, 1930ean. Europako selekziorik ia gehienek ez zuten parte hartu, txapelketa Europan jokatzea nahi zutelako. Azkenean etxeko taldeak irabazi egin zion finalean Argentinari. Horrela bihurtu zen Uruguai Munduko Futbol Txapelketa bateko lehen herrialde txapelduna. Munduko Futbol Txapelketak, 1934an, Italiara egin zuen jauzi. Eta europar selekzioek lau urte lehenago egindako boikotari erantzunez, hegoamerikar selekzioek ez zuten jokatu.

Orduan Benito Mussolini zegoen agintean Italian, eta kosta ala kosta irabazi nahi zuen, herrialdeari ospea emateko. Italia izan zen garaile; hori bai, nazionalitatea lortutako futbolari argentinar askorekin jokatuta. Eta epaileek finalean hartutako erabakiak ere oso eztabaidatuak izan ziren. 1930-1940 hamarraldian gerrek eragina izan zuten txapelketan. Espainiako Gerra Zibilak, Txina eta Japoniaren artekoak eta Bigarren Mundu Gerrak txapelketari uko egitera behartu zituzten zenbait herrialde. Izan ere, ez zuten modurik euren selekzioak jokatzerara bidaltzeko.

Munduko Futbol Txapelketako une gogoangarriak

Gehien gogoratzen den gertaeretakoa bat 1950eko txapelketan izan zen: Maracanazoa. Txapelketa Brasilen zen, eta bertako selekzioa faborito, gol ugari sartu baitziren gainerako selekzioei. Aurreikuspenak hautsiz, Uruguai irabazi egin zion Brasili, Rio de Janeiroko Maracanã zelai mitikoan izandako finalean, 170.000 ikusleren aurrean.



Brasilgo orduko egunkariak “tragedia nazionaltzat” jo zuten gertatutakoa. Brasileko futbol-historiako gertaera beltz horren ondoren, ordea, Canarinharen urrezko aroa hasi zen. Edson Arantes Do Nascimento, “Pelé” ezizenez ezaguna, buru zutela selekzio brasildarrak Suedia (1958), Chile (1962) eta Mexikoko munduko txapelketak (1970) irabazi zituen.

Aurrerapen teknologikoei esker, 1970eko Munduko Kopa izan zen telebistan koloretan eman zen aurrenekoa. Horrek asko ugaltu zuen txapelketaren ikusle-kopurua eta oso ospetsu bihurtu zuen mundu osoan: geroz eta selekzio gehiagok ematen zuten izena sailkapen-faseetarako, txapelketa ofizialean lehiatzeko itxaropenez.

Pelé, Brasilgo jokalaririk ospetsuenetakoa

“Jainkoaren eskua” eta “Mendeko gola”

1986ko txapelketa ere oso gogoan dute zaletuek. Orduko protagonista Diego Armando Maradona argentinarra izan zen, joko-erakustaldi gogoangarria izan zuen-eta. Final-laurdenetan Argentina eta Ingalaterra arerio ziren. Zelaian jokalaria izan ziren lehiakide, baina zelaitik kanpo ere bazen lehia: Malvinetako Gerra zela-eta etsaituta zeuden ingeles eta argentinarrak gobernauak.


Maradonak txapeldun bihurtu zuen bere taldea “Jainkoaren eskua” gisara ezagutzen den lehendabiziko gol oso eztabaidatsu bati eta “Mendeko gola” izeneko beste bati esker. Munduko Txapelketa bigarren aldiz irabazi zuen Argentinak orduan... Eta orduz geroztik hor dabil hirugarren garaipenaren bila.

90 hamarkadako urteetatik aurrera txapelketa are modernoago egin zen. 1998an Frantzia izan zen etxeko taldea, eta frantziar zaletuen zortetarako bere taldea etxean irabazten ikusi ahal izan zuten: Les Bleus taldekoek Brasili irabazi zioten, Zinedine Zidane gidari zutela.

Asiar kontinentean izan zen aurreneko Munduko Txapelketa 2002koa izan zen. Hego Koreak eta Japoniak elkarrekin antolatuta zuten. Eta berriro irabazi zuen Canarinhak, Ronaldo izar bihurturik. Japoniako Yokohama Nazioarteko Estadioan Brasil txapeldun izan zen bosgarren aldiz; aurten, Errusian, Alemania saiatuko da balentria hori berdintzen.



Maradona, gola ospatzen



Ondoren erantzun beheko galderi zeure hitzekin.

1. Gerrek zer-nolako eragina izan dute munduko futbol-txapelketetan?

2. Deskribatu gertakari hau: “Maracanazoa”.

3. Deskribatu gertakari hau: "Jainkoaren eskua"

Futbolaz aritzeko egiturak

Irakurri duzun testuko informazioa kontuan hartuta, osatu ideia batzuk egitura hauek erabilita:

- jokatu zen.
- gola sartu zuen.
- garaile atera zen.
- sailkapenean sartzea lortu zuen (zuten).

Ondoren, 2014ko Munduko Futbol Txapelketako datuak kontuan hartuta osatu esaldi hauek:

1. _____ (non) jokatu zen.
2. _____ atera zen garaile.
3. _____ sartu ziren Kopako sailkapenean.
4. _____ gola sartu zuen, Alemaniari koparen garaipena emango ziona.



Futbolaz hizketan

Erantzun binaka beheko galderari, eta ondoren komentatu erantzunak taldekideekin.

- Futbola gustatzen al zaizu? Zein da zure ekipo gustukoena?
- Ikusi duzu inoiz partidu bat estadioan? Noiz eta non izan zen?
- Zure ustez, futbolak zer balio erakusten ditu?
- Nork irabaziko du, zure ustez, aurtengo Munduko Futbol Txapelketa?

ERANTZUNAK

Futbolaz bi hitz

- Munduko Futbol Txapelketa lau urtetik behin izaten da. EGIA
- Italiak irabazi ditu Munduko Futbol Txapelketa gehien. GEZURRA (Brasilek)
- Emakumezkoen Munduko Futbol Txapelketa ere izaten da. EGIA
- Lehendabiziko Munduko Futbol Txapelketa Uruguain izan zen. EGIA

Munduko Futbol Txapelketaren historia

1. Gerrek zer-nolako eragina izan dute munduko futbol-txapelketetan?

Bigarren Mundu Gerran ez zen Munduko Futbol Txapelketarik egon, eta Espainiako gerra zibilean eta Txina eta Japoniaren artekoan, zenbait herrialdek ez zuten parte hartu, beren jokalaria ezin izan zituztelako bidali.

2. Deskribatu gertakari hau: "Maracanazoa"

Maracanazoa diogunean honetaz ari gara: 1950ko Munduko Futbol Txapelketan, Rio de Janeiroko Maracaná futbol-zelaian Uruguai Brasili irabazi zion, zeuden aurreikuspen guztiak hautsiz.

3. Deskribatu beste gertakari hau: "Jainkoaren eskua"

"Jainkoaren eskua" izenez ezagutzen da Diego Armando Maradona futbolari argentinarrek sartu zuen gol eztabaidatsua. Gol hori 1986ko Munduko Futbol Txapelketako final laurdeneko partiduan sartu zuen Maradonak, Argentina eta Ingalaterraren artean jokatu zen partiduan.

Futbolaz aritzeko egiturak

1. 2014ko Munduko Futbol Txapelketa, bigarren aldiz, Brasilen jokatu zen.
2. Finaleko partiduan Argentinaren aurkako jokatu zen partidu gogoangarrian Alemania atera zen garaile.
3. Final horretan, besteak beste, Brasil, Japon eta Australia sartu ziren Kopako sailkapenean.
4. Final horretan, Alemaniako ekipoko jokalaria zen Mario Gotzek gola sartu zuen, Alemaniari koparen garaipena emango ziona

Sekuentzia hau Difusion-hoy en clase sailetik hartu eta egokitu dugu.



Brasilgo 1970eko selekzioa